

Euskal Hiriruntz?

*Lurralde Benchmarking Konparatua
Gizarte Berrikuntzatik*

Gizarte Berrikuntza



Euskal Hiriruntz?

Lurralde Benchmarking Konparatua Gizarte Berrikuntzatik

Dr. Igor Calzada, Ph. D.

Argitaratzailea: Innobasque - 2011

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Bizkaiko Teknologi Parkea
Laida Bidea 203, 48170 Zamudio

Lege gordailua: BI-3114/2011



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:

Aitortu–Ez merkataritzarako–Lan eratorririk gabe 3.0 Unported

(informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Disenua: Doble Sentido

Aurkibidea

Egilea	4
Sarrera	6
A. Hemen	12
A.1. 3 Aurretiazko kontzeptuak	13
A.1.1. Euskal Hiria	13
A.1.2. Hiri-Erregioa	14
A.1.3. Gizarte Berrikuntza	15
A.2. Euskal Hiria = Euskal Hiri-Erregioaren Eredu Sozio-Territoriala	17
A.2.1. 4 Sistema eta 12 Faktore:	17
A.2.1.1. Urbs: Sistema Urbanoa	17
Hiri-Erregio Jasangarria	
A.2.1.2. Cyber: Sistema Erlazionala	18
Hiria- Erregio Konektatua	
A.2.1.3. Civitas: Sistema Sozio-Kulturala	19
Hiri-Erregio Sortzailea	
A.2.1.4. Polis: Sistema Sozio-Politikoa	20
Hiri-Erregio Parte-hartzailea	
A.3. Euskal Hiriaren Geroko Bilakaera	21
B. Han	24
B.1. Lurralde Benchmarking Konparatua. 2 Hiri-Erregio kasu:	25
B.1.1. Dublín (IRE, EB):	25
Hiri-Erregio Konektatua eta Sortzailea	
B.1.2. Portland (OR, EE.BB.):	37
Hiri-Erregio Jasangarri eta Parte-hartzailea	
Irudien zerrenda	50
Bibliografia	54

Egilea

Gaurko kokamendu akademikoa

Doktorea Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zuzendaritzan. Gaur egun Irakasle, Ikertzaile Senior eta Proiektu Zuzendari da Mondragon Unibertsitatean, Enpresa- Zientzietako Fakultatean. Irakaskuntza (ingelesez) ematen du eta ikerketa egiten du, argitalpenak egin eta proiektuak zuzentzen ditu honako ezagutza-eremuotan: Lurraldeak: Hiriak eta Erregioak; Berrikuntza: Hiritarra, Soziala eta Politikoak; Kapital Soziala eta Ekintzaitza Soziala; Estrategia eta Prospektiba: Lurraldekoa; (e)-Governantza eta Partehartze Hiritarra; Teknologia: Sozialak; 2.0 eta Sareak.

Ibilbide profesionala

Aldez aurretik, haren ibilbidea, besteak beste, honako mugarri profesional hauetatik igaro da. Ikertzaile Asoziatua izan da Nevadako (Reno /EE.BB) Unibertsitateko Euskal Azterketen Zentroan. Koordinazio Zuzendari bezala lan egin du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzan. Bere lana barruti akademikoan, instituzionalean eta nazioarteko enpresarenean garatu du, zehazki, EBeko 5º, 6º eta 7º Esparru Programetan Berrikuntzaren barrutian. Zehatz esanik, 10 urte daramatza Mondragon Korporazio Kooperatibo Taldean (<http://www.mcc.es>), Berrikuntzaren eta Sormenaren barrutian Udako Eskolak zuzenduz. (<http://www.elcapitalcreativo.org> eta <http://www.thecreativesociety.org>) Euskal erakunde eta enpresentzat proiektuak burutzen. Aholkulari Estrategiko bezala erakundeak, enpresak eta ikerketa/teknologia zentroak lagundu ditu. Hasiera batean zuzendaritza-postuetan ekin zion Euskadiko ETEetan.

Prestakuntza akademikoa

Haren prestakuntza eta gaikuntza honetan laburbiltzen da: Ikaskuntza Aurreratuen Diploma lortu zuen (DEA) Action Researcheko Ikerketa Zentrotik Helsinkiko Unibertsitatean (Finlandia) eta Deustuko Unibertsitateko Humanitateak eta Enpresa Fakultatean MBA da—ESTE—Deustuko Unibertsitatean Zientzia Ekonomikoak eta Enpresetako Fakultateko Enpresa Kudeaketako Masterra du. Euskalitetik Kalitate Guztizkoaren Kudeaketan ziurtatu zen. Zientzia Sozial eta Politikoetan Lizentziaduna da Deustuko Unibertsitateko. Eusko Ikaskuntzako bazkidea da eta Lokarriko kidea. Sarri izan da lankide euskal prentsa idatzian: Berria, Noticias de Gipuzkoa, Diario Vasco eta Gara.

Sarrera

Beste igoera bat behar dugu, herrialde honetako pertsonen bizitza oraindik gehiegi baldintzatzen duten bi zirkulu horietatik irtetea. Uste dut hori gertatuko dela, hain zuzen ere, euskal errealitate berriari beste begirada batez, utopia bat sortzeko, asmatzeko gai den batez so egitean; ez utopia heroiko bat –nahikoa izan ditugu dagoeneko– baizik eta helburutzat, amestzat hemen bizi garen guztion bizikidetzak hobe bat izango duena. Nik utopia horri Euskal Hiria deitu diot. Beste batzuek, agian, beste izen bat ezarriko diote

Ez da izango ez gaurko, ez biharko gauza; baina aldiune utopiko hori iritsiko da. Baina, irits dadin, ideiak bota behar dira, eta Salzburgeko pinuaren adarra bezala jaurti, meatze baten sakonerara, ea han eraldatzen den eta gero kristalez estaldurik atera dezakegun, distiratsu eta leinurutsu.

Bernardo Atxaga



1. figura

Euskal Hiriruntz? Gizarte Berrikuntzatik Ekarpena

*Hiria bertan sartu gabe pasatzen denarentzat bat da;
eta beste bat hartan preso dagoen eta irteten ez denarentzat;
Bat da lehen aldiz norbera iristen den hiria,
Beste bat ez itzultzeko uzten dena;
Bakoitzak izen desberdin bat merezi du.*

Italo Calvino
Hiri ikusezinak



2. figura
 "Euskal Herria"
 National Geographic-en

*Hiria, euskararena, beste hizkuntzena. Bizikidetzarena, auzoena. Herriena. Konektatuena. Sortzaileena, erabiltzaileena eta alderantziz. **Iritziena eta ideiena.** Zurea eta nirea. Gurea. Baita zurea, zatozena eta atzean uzten duzunarena. Oroimenean gordeko duzunarena. Bizikleta eta kafearena. Hemendik, kanpora dihoana. Kanpotik barrura konektatua dagoena. Maletan daramaguna, pozik eta duin. Mundu zabalean leku bat duena, duin (berriro diot). Zabalik ikusten duguna, horrela sentitzen dugulako. Gurea ere, sentitzen dugulako. Handia ez, zabala. **Hesirik gabea. Irlak?** Bai, norberak aukeratzen dituenak. Ez inposatuak. Gibeletatik ikasiz, aurrekoa egiteko beldurrik ez eta atzekoarekin itsuturik bizi ez dena. Txikien, herrien, auzoen, ... azoken ... sare zabala. Geografi txiki ezberdin askoren atxikimenduaren baturarekin osatzen dena. **Hiri-sarea.***

Hiria, herrien konstelazio urbanoa, baita landatarra ere. Biak, batera, nahasturik.

Berria baina eraikin zaharrekin egina. Umeena. Umeentzako izango baita, heurentzat uzten duguna. Urrunak gertukoekin konektatuak. Geografiaren erpin batekoak beste erpinekoekin hartuemanean. Elkarrentzute, Elkarrulertze, Elkar hitzegitearen hiria.

Elkar hizketen hiria.

Hitzen hiria.

Euskal Herria.

Gaur egun mundu-biztanleriaren %50 gutxi gorabehera **hiritarra** da, baina 2025ean biztanleriaren %75 **hirietan** biziko da. Gertaera hiritarraren ulerkuntza eta politiketako aldakuntzak eta hiriak berak osagai eratzaille funtsezko bezala aurkezten dira euskal gizarte aurreratua bezalako den edozein Gizarte Sareentzat (Castells). Alabaina, erreferentziako lekuetan gertatzen ari den bezala, zehatz esateko EE.BBetan eta EBean, hiriek inoiz baino gehiago behar dituzte Gizarte Berrikuntzaren ikuspegitik abiatzen diren proposamenak, baldin eta jarrera gailendu eta erreferentziala sendotu nahi baldin badute hiri eta nodo geopolitiko bezala bere burua eraikitzean ikuspen estrategikoarekin.

Testuinguru honetan¹ “Euskal Hiriruntz: Gizarte Berrikuntzatik Ekarpena”k gaur egun Euskal Autonomia Komunitatea (EAE aurrerantzean), eta zehatzago Euskal Geografien aldakuntza-egoeraren diagnosi bat proposatzen du; (a) krisi ekonomikoa gainditzeko bideak; (b) Eusko Jaurlaritzaren alternantzia eta ezker abertzalea euskal erakundeetara sartzeara; (c) gaurkoa ez bezalako eredu produktibo eta energiako baterako igarobidea; (d) immigrazioaren inpaktua; (e) talentuaren globalizazioa eta garrantzia ekintzaitzaren astingarri gisa; (mugikortasuna eta konektibitate digitala aurrerapenaren eta ongizatearen ardatz traktore gisa; (g) zientzia eta teknologiaren iraultza eta hark duen inpaktua enpresa-ehunean; (h) azpiegituren indartzea mugikortasun eta konektibitate fisikorako, hala nola Trenbideko Abiadura Handia (Euskal Y-a); (i) aurrekorik gabeko hiri-berrikuntza (Guggenheim efektua), (j) 2.0 teknologien eta sare sozialen inpaktu handia; eta azkenik, garrantzia gutxiagokoa ez bada ere, (k) ezinbestez iristen ari den balizko baketze baten eszenatoki berria.

Gertaera sozial horiek guztiek aldakuntza-faktorezko amalgama bat itxuratzen dute (besteak beste), zeinek gutxienez eragin behar baitu ikerketa bat egitea Euskal Geografiak (EAE erdiko nodo dela) Hiri-Erregio bat balitz bezala egituratzen hasteak izango lukeen bideragarritasunaz. Erregio-garapeneko azken joerak jarraituz, gero eta hedatuagoa da Hiri-Erregioen beharraren ideia eta ahalmenaren ustiapena. Aditu gailenik izan da gaur arte Euskal Geografiak ardatz estrategiko oso garrantzitsu bat bihur daitezkeela sendesten dutenak Hiri-Erregio bezala eratuko balira. Hala eta guztiz ere, badirudi ideia horrek oraindik ez duela aurkitzen bere bidea ezta eratzte-bide argirik ere. **Euskal Hiria** kontzeptua analisipean ezartzea proposatzen da Euskal Geografiak eratzeari darizkion tentsio eta kontraesanen adierazgarri hoberentzat. Eta ikuspegi ideologiko desberdinetatik eratzte zabal eta aplikagarri baten proposamena izan daitezkeela kontsideratzen delako.

Horrekin guztiarekin Calzada doktoreak bere liburuan euskaldunen Euskal Hiri-Erregioaren Eredu Sozio-Lurraldetar Berri baten Berrasmatze bat bezala lantzen du Euskal Hiriaren proposamen bat.

Horretarako egileak honako jarrera zientifiko-metodologiko hau hartzen du:

1. Metodologikoki Euskal Hiria balio ideologikoz kargatzea saihestu da.
2. Euskal Hiriaz hau ulertu behar dugu: “Euskal Geografien” multzoa euskaldungoaren osagai bezala.

1

Argitalpen hau Laburpen Exekutiboaren bertsio laburbildu bat da (Innobasque-k editatua) Eusko Jaurlaritzak editatutako argitalpen handituarena: Calzada, I. “¿Hacia una Ciudad Vasca? Aproximación desde la Innovación Social” Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu nagusia, 2011. (c) ISBN: 978-84-457-3180-2.



3. figura

“Euskal Hiriko” “lekuren bat”

3. Euskal Hiria “geografikoki” Euskal Geografietako bakoitzaren barruan eta haien artean eman daitezkeen fluxu eta harremanen intentsitateak eta kopuruak determinaturik egongo da. Fluxu informazionalak, erlazionalak, identitario-kulturalak, hizkuntzazkoak, ekonomiko eta enpresazkoak, fisiko eta azpiegiturazkoak, erkidegokoak, instituzionalak eta politikoak ere aurreikusten dira. (M. Castells)
4. Euskal Hiria mapa geografiko bezala, aldez aurretiko mugarik eta edozein motatako balio ideologikoen aipamenik gabe iraganeko jaidurak eta inertziak saihesteko: Hiri-Erregioaren Analisi eta Eratzearen Eredu Berri bat Euskal sarean edo XXI. Mendeko Euskal Herriarena
5. EUSKAL HIRIA eratzen duten 5 Euskal Geografiak hauek dira:
 - CAV/CAPV/Euskal Autonomia Erkidegoa.
 - Nafarroako Foru Komunitatea edo Nafarroa.
 - Pays Basque edo Iparralde.
 - CyberEuskadi.
 - Diaspora.

A. Hemen

A.1. 3 Aurretiazko kontzeptuak

A.2., A.3 eta B.1.ren garapenaren aurretik, Euskal Hiria eta Lurralde Benchmarking Konparatuarekin erlazionaturiko gai nagusiak aurkeztu behar dira:

A.1.1.- Euskal Hiria

Zergatik proposatu behar da Euskal Hiria bezalako kontzeptu bat?

4 arrazoi agertzen dira, zeinen arabera beharrezko eta presazkoa baita Euskal Hiriaren planteamendua Gizarte Berrikuntzatik egitea:

1. Horretarako dagoen **BEHAR SOZIAL** ezinbestekoarengatik:
 - Euskal Hiria = Errealitate dual/antagonikoaren (abertzale edo ez-abertzale) artefaktu kontzeptual barne-hartzailea
 - Zeren kontzeptuen kaosa baitugu eta hartan geure irizpidea gainerakoei ezartzen saiatzen gara: Nomenklatura ugari eta izen asko erabiliz gauza bera aipatzeko: Euskadi, Euzkadi, Euskal Herria, País Vasco, EAE...
 - “Euskal Geografiak”: Euskal Hiriak iraganeko “euskal” nomenklatura guztien integratzaile bezala jokatuko luke.
 - Eredu Sozio-Lurraldetar bat berrasmatu (beraiek diseinatua) Europako Batasunaren azpian dagoen errealitate batera egokitutako kontzeptu batetik. Beti kontzeptu hori gara daitekeelarik lurraldearen “soberaniatik” eta Hiri-Erregio beraren erabakimenetik. Hala erdigune eta nodo bezala bere burua eraikiz. Inoiz ez “sukurtsal” soil gisara, aspektu hori urrundurik baitago Sassen, Florida eta Castells-en, besteak beste, moduko adituen ikuspenetatik.
2. Gaurko eszenatoki berrian txertatu behar dugun **ULERKUNTZA OROKORRA**arengatik
 - Lurralde-eraketa: Gero eta Konplexutasun Sozial handiagoa duen euskal errealitatea onartuz eta kudeatuz. Zehar-zubiak bonbardatzen dituzten muga ideologikoak neutralizatu; horiek direlarik lehen aktiboa lurraldearen Bizikidetzeta, Gizarte Bake eta Gobernantza Demokratikorako. Bestalde, elkarrizketa bultzatu muga ideologikorik gabe. Halako moldez, non betorik izan ez dadin.
 - Baketzea: Gizarte-zatiketzea gaindituz eta konponduz (artxipelagoak konektatuz) bai eta Indarkeria Politikoaren ondorioak ere. Bada gaur egun euskal hiritarren ehun moral eta soziala birkonpontzeko begibistako beharra.
3. Izaera **TEKNIKOKO EXISTENTZIA ETA OBJEKTIBOTASUN** baten alde.
 - Zeina bat baitator azken Lurralde Joerekin. Izan ere, gero eta hurbilago gaude Euskal Hiri-Erregiotik.
4. Nazioartean **LURRALDE kontzeptuaren EGUNERATZE** bat gerta dadin.
 - LURRALDEA = LURRA (lurzorua) + IDENTITATEA (komunitatea) + SAREA (fluxua).

- Iraganeko akatsa. Orainaldiko miopia. “Abertzalismoaren” Krisira eraman duena hauxe baizik ez da: Eraikuntza Lurraldetasun Fisikotik bakarrik kontsideratzea. Hala, Lurralde eratzearen estrategiak txertatu behar dira onartuz Sare Fisiko, Digital eta Sozialetatik eratu behar dela. Euskal Geografien arteko Hitzarmenak eta Itunak Soberania-kidetza gakoan.

Hitz batean, zeren “Hiria (Hiri-Erregioa) da euskal gizartea bezain konplexua den bati ondoen dagokion lurraldetasuna”.

A.1.2.- Hiri-Erregioa

2 Baina zer da Hiri-Erregioa?

Kloosterman, R.C. eta
Lambregts, B. “Clustering of Economic Activities in Polycentric Urban Regions: The Case of the Randstad” Urban Studies, vol. 38, No. 4, pp.717-732, 2001

“Hiri-bildumak dira, historikoki benetakoak eta administratiboki burujabeak halako hurbiltasun batean kokatuak, azpiegituren bitartez ongi konektatuak, eguneroko mugikortasunerako erraztasunekin bizitza profesional eta pertsonalaren artean (commuting) enpresarteko eta sareen lankidetza-nexoen baliamentuarekin, alor ekonomiko funtzional bakar eta singular bezala funtzionatuz.”

Une oro premisa nagusia eta paralelismoa Euskal Hiria = Euskal Hiri-Erregioa Sarean kontsideratzea da. Egin daitekeen oharpen bat hau da: Hiri-Erregioa ez dela Erregionalismoaren aipamena egiten duen kontzeptu politiko bat. Kontzeptu tekniko-lurraldezko dinamiko bat da aukera guztiak zabalik uzten dituen gako juridiko-politikoan hura eratzeko: Konstituzionalismoa, Autonomismoa eta Soberanismo/Independentismoa.

Beraz, Hiri-Erregioa areago da lurralde-edukitzaile bat alde zurreratik finkatutako eduki bat baino.

Hiri-Erregioa kontzeptuaren ahalmen eta birtualtasun guztia da lurralde baten fluxuan eta kontzepzioan oinarritzen den lurralde-kontzeptu bat Sare Fisiko, Digital eta Sozial bat balitz bezala. Horregatik hain zuzen EB, EE, BB, eta asiar herrialdeen eskalako proiektu asko, benetan kontsideratzen ari dira Hiri-Erregioak identifikatuz. Lurralde gaian unibertsitate eta ikerketa-zentro aurreratuenak direnak Hiri-Erregioak nola portatzen diren identifikatzen eta azaltzen ari dira eta zergatik diren aurreratuak Gizarte Berrikuntzaren alorrean, (Informazio osoa xehetasun guztiarekin Calzadan, 2011, 117-128. or.)

Hiri-Erregioaren lurralde-unitatearekin lan egitearen azken helburua Gizarte Berrikuntzako 4 Ardatz Estrategikoetakoren batean edo batzuetan nabarmendutako praktikak garatzen ari diren Lurraldeetan ikasitako analisi-faktoreak edo ikasgaiak konparatzea da: Komunitatea, Konektibitatea, Partehartzea eta Sormena.

A.1.3.- Gizarte Berrikuntza

Euskal Hiriaren kasuan hauek izan dira Ideia Indar bezala identifikatutako Gizarte Berrikuntzaren 10 Ardatz Estrategikoak (Calzada, 2011: 156):

GIZARTE BERRIKUNTZAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK	EUSKAL HIRIAREN ATRIBUTUAK ETA SISTEMAK
Ideia Indarra 1 Hard-a Soft-az osatu.	
Ideia Indarra 2 Oreka burutu landatarraren eta hiritarraren artean.	HIRI JASANGARRIA=URBS [2/9/10]
Ideia Indarra 3 Immigrazioa aukera bezala baliatu kultura-aniztasunerako eta kultuaniztasunerako.	
Ideia Indarra 4 Jabeturik egon gurearen moduko tokiko identitateen garrantziaz mapa global batean (gloKalizazioa).	HIRI KONEKATUA= CYBER [1/6]
Ideia-Indarra 5 Sinergiak bilatu hiru sormen moten artean:[ekonomikoa, teknologikoa eta artistikoa]	
Ideia Indarra 6 Teknologian bilatu aliatu hoberena.	
Ideia Indarra 7 Hiritarren partehartze-prozesuak bultzatu edozein mailatan eta edozein erabaki motatarako.	HIRI SORTZAILEA = CIVITAS [3/5/8]
Ideia Indarra 8 Arreta berezia izan belaunaldi berrientzat [V belaunaldia] Gizarte Sortzaile honen subjektu aktibo bezala.	
Ideia Indarra 9 Garrantzi handia eman hirigintzari bizitza sozial eta publikoa antolatzeke mekanismo bezala.	HIRI PARTE-HARTZAILEA = POLIS [4/7]
Ideia Indarra 10 Jabeturik egon esperientziak eta emozioak giza interakzio ororen erdian daudela [esperientziaren ekonomiaz hitz egiten dugu dagoeneko]	

4. figura

Gizarte Berrikuntzako Ardatz Estrategikoak. Euskal Hiriaren Atributuak eta Sistemak

Horrek hau reagiten digu:

- Euskal Hiria Euskal Hiri-Erregio Jasangarri, Konektatu, Sortzaile eta Partehartzaile bezala kontsideratzea.
- Euskal Hiria bi Hiri-Erregio kasurekin konparatzea:
 - Dublin (Irlandan), Hiri-Erregio Konektatu eta Sortzaile bezala.
 - Portland (en Oregon-EE.BB.), Hiri-Erregio Jasangarri eta Partehartzaile bezala.
- Eta Euskal Hiria edo Euskal Hiri-Erregioaren Eredu Sozio-Lurraldetarra honela lortzea:
 - 4 Sistema bata besteari lotuak, elkardependentziazko batura bezala:
 - > Urbs, Sistema Hiritarra (Komunitatea)
 - > Cyber, Sistema Erlazionala (Konektibitatea)
 - > Civitas, Sistema Sozio-Kulturala (Sormena)
 - > Polis, Sistema Sozio-Politikoa (Partehartzea)
 - > Beren ondoriozko 12 Eratze Faktoreekin

Euskal Hiriaren Eredu Sozio-Lurraldetarra Gizarte Berrikuntzatik				
Sistema (4)	URBS Sistema Hiritarra	CYBER Sistema Erlazionala	CIVITAS Sistema Sozio- Kulturala.	POLIS Sistema Sozio- Politikoa
Faktoreak (12) (Azpikapitulua)	5.1.- Giza Geografia. 5.2.- Gizarte Sortzailea. 5.3.- Hiri-Sarea.	6.1.- Konektibitate Fisikoa. 6.2.- Konektibitate Digitala. 6.3.- Konektibitate Soziala.	7.1.- Multikulturatasu na: Immigrazioa. 7.2.- Sormena/ Hezkuntza/ Talentua/ Ekintzaitza. 7.3.- Komunitate Lokalak.	8.1.- GloKalizazioa, Identitatea, Diaspora eta Euskara. 8.2.- Partehartze Hiritarra eta Hiritargoa 2.0 8.3.- Lurralde Arauketa: LHL.
Gizarte Berrikuntzaren Ardatz Estrategikoak	KOMUNITATEA	KONEKTIBITEA	SORMENA	PARTEHARTZEA
Atributua	Hiri-Erregio JASANGARRIA	Hiri-Erregio KONEKTATUA	Hiri-Erregio SORTZAILEA	Hiri-Erregio PARTEHARTZAILEA
Hiri-Erregio Benchmarking	Portland (OR-EE.BB.)	Dublin (IRE-EB)	Dublin (IRE-EB)	Portland (OR-EE.BB.)
Egile seminala	<i>Jane Jacobs</i>	<i>Manuel Castells</i>	<i>Richard Florida</i>	<i>Robert Putnam</i>

5. figura

Euskal Hiriaren Eredu Sozio-
Lurraldetarra Gizarte Berrikuntzatik

A.2.- Euskal Hiria = Euskal Hiri-Erregioaren Eredu Sozio-Lurraldetarra

Hala iristen gara Euskal Hirira:



6. figura

Euskal Hiriaren Eredu Sozio-Lurraldetarra Gizarte Berrikuntzatik
4 Sistema eta 12 Faktore

A.2.1. 4 Sistema eta 12 Faktore

A.2.1.1. Urbs: Sistema Urbanoa Hiri-Erregio Jasangarria

3 faktorek osatzen dute:

- (1) Giza Geografia
- (2) Gizarte Sortzailea eta
- (3) Hiri-Sarea

Euskal Hiria kontzeptuaren alderdirik ikusgaiena (kaleak, eraikinak, azpiegiturak, portuak, aireportuak, errepideak, trena...) eta kritikagarriena da, zeina izan baita bestalde interpretazio "bihurrituen" helmuga eta itu eta biziatsuak eta sinplistik ere esatera ausartuko nintzateke. Azterketa sakonagoak egin beharko liriateke eta ez hain "propagandazkoak" bi alderdietako edozeinetatik: Instituzioetatik eta Gizarte Mugimenduetatik.

Hemen honako gaiak elkarri lotzen zaizkio:

1. Biztanleriaren Zahartzea Japonian.
2. Mugikortasun-fenomenoa agertzea: "Commuters",
3. Indibidualismo Atseginezkoaren eta nagusitasun argian Babestuaren Gizarte Balioak.
4. Kontsumo Austeroko Jarraibide Berriak eta Ohitura Jasangarriak.
5. Landa-hiriko Bizitzaren (Rurban) Estiloa azalartzea eta haren Erresistentzia
6. Beraz: Landa-hiritartzearen erronka Metropolizatzearena baino areago, Hiri-Erregio Desjarraitu eta orekatu baterako Estrategiak implementatuz.

7. Interakzio-guneen Rola eta Kudeaketa Gizarte Sortzailean: Kasu hau aztertzen da: TABAKALERA (TBK).
8. Maila MAKROAN: Euskal Geografien arteko Elkardependentziari Beharrezko Bulkada. EUROHIRIA edo EUSKAL EUROERREGIOA aipatzen dira eta Euskal Hiriarekin duen erlazioa. Euskal Hiriak bere baitan hartzen du Eurohiria (ez alderantziz)
9. Eta azkenik, maila MIKROAN: baiara-Polizentrismoaren garrantzia.

*A.2.1.2. Cyber: Sistema Erlazionala
Hiri-Erregio Konektatua*

3 Faktorek osatzen dute:

- (1) Konektibitate Fisikoa
- (2) Digitala eta
- (3) Soziala.

Bideez eta pertsonen konexioetarako irispideez, aktibo ukigarriez (merkantziak, ondasunak eta produktuak) eta ukiezinez (finantza-, ezagutza-, hizkuntza-, kultura- eta ulerkuntza-fluxuak) horrela aritzen den parte da. Lurralde-sinergia barnekoak eta kokamendu estrategikoa nazioarteko sareetan bilatzen dira. Sistema Erlazionala da: pertsonen, instituzioen eta lurraldeen fluxuez eta harremanez aritzen da. Euskal Geografiak beren artean nola erlazionatzen diren da gaia, Hiri-Erregio Konektatu bat eratzeko, zeinek izan baitezake horrela edonolako sarbidea maila administratibo eta juridikoan. Baina baldintzatzaile handi bat dago: Fluxurik ez bada, ez dago Euskal Hiririk.

Elkarrekin lotzen diren gaiak:

1. Guggenheim Euskal Hiriaren Ikono global, Marka, Apeu, Iman bezala... galdetuko genuke, ba al dugu Zentraltasunik?
2. Eta Euskal Y-a EBrekin konektatzen gaituen Abiadura Handiko Tren bezala galdetuko genuke, nola kudeatu du Eusko Jaurlaritzak? Eta Izaera Ekologista duten Gizarte Mugimenduek?
3. "Historia behin eta berriz errepikatzen da": Leitzarain, Euskal Y-a, Pasaia..., galdetuko genuke Ez ote dugu erakusten agian Patologia Sozial bat Gatazkarantz jotzen duena Azpiegiturei dagokienean? Patologia Sozial eta Sistemaren Kontraesan Estruktural hori azpiegitura-proiektuetako desakordioa kudeatzen dugun Jardunik Ezaren ondorioa besterik EZ da.
4. Irispide Digital berdin, sozial eta osasuntsu bat sustatzen ari al gara? Irispidea Eskubide Hiritar bat al da?
5. Gizarte Kapital Komunitario handiaren jatorria: Bi Praktika historiko bikain: Arrasateko Kooperatiben Esperientzia eta Ikastolak.
6. Ehun Morala Hondatzea Aurkaritza Politikoaren ondorioz. Eta horrela
7. Gizarte Kapital Komunitarioa pixkanaka zatikatzea.
8. Oraingo egoera "Igarokorra": Sare Sozialen Fenomenoa gorantz etorri delarik eta azkenik:
9. Derrigorrezko Konektibitate Soziala Komunitate Glokaletan itxuratze Berri baten bitartez.

A.2.1.3. *Civitas: Sistema Sozio-Kulturala**Hiri-Erregio Sortzailea*

3 Faktorek osatzen dute:

- (1) Kulturantzitasuna-Immigrazioa
- (2) Sormena/Hezkuntza/Talentua/Ekintzaitza eta
- (3) Komunitate Lokala

Pertsonengan (hiritarren eta haien eguneroko harremanetan datzan Euskal Hirien parte da. Eguneroko bere burua eratzeko duen errealitatea da izaera desberdineko hiritarren interakzioekin Euskal Geografietan.

Elkarri lotzen zaizkion gaiak:

1. Bizikidetzaren Hiritarra ezin daiteke bermaturik egon Asimilazionismo Kulturantzitasun baten bitartez, Euskal Hiriko Landa Nodo askotan gertatzen ari den bezala.
2. Ondorioz, Kulturantzitasunetik Kulturartekotasunera aldatu behar dugu Topatzeko Guneak Diseinatu auzoetan eta herrietan
3. Euskal Hirien Kontraesan Estruktural handienetako baten aurrean gaude: "Sistemak dinamismoa eskatzen du eta egonkortzea lortzen du". Hau da, Sormena+Ekintzaitza eskatzen dugu eta Burokratizazioa + Konformismoa lortzen dugu. Heziketa txarrekoak jotzen da arazoez hitz egitea itxuraz inolako arazorik ez dagoen eta oso ondo bizi garen gizarteetan."
4. Gero horrekin, zer arreta eskaintzen zaio lozorrotik aterako gaituen Tokiko Talentuari, Harrobiari eta habitat Hezitzaile Sortzaile bat sortzearen premia-kotasunari? Edo agian John Lennon-ek esan zuenaren aurka: "Langile-klaseko heroi bat izatea jadanik EZ da ezer GARRANTZITSUA".
5. Behar bada, mobiliza genezake Talentua Lankidetzako Ekintzaile Proiektuekin?
6. Eta Talentu Globala Erakartzeari eta Fitxatze Politikari buruz, edozerk balio al du?
7. Eta hori guztia, nola txertatzen da Auzategi eta Herrietako barrutietara? Sor ote genitzake Hiri-Landa Dinamikak Komunitate Lokalak Esparru Bereziak beren buruak eratuz joan daitezkeen?
8. Ez ote gara hizketan ari Auzolan berrituaren bertsio bat berreskuratzeko edo gutxienez egiteaz?
9. Auzolab-ak diseinatu: Esparru Bereziak Sor-kidetzan eraikitze Komunitate Laborategiak.

A.2.1.4. Polis: Sistema Sozio-Politikoa

Hiri-Erregio Parte-hartzailea

3 Faktorek osatzen dute:

- (1) GlobaliKalizazioa, Identitatea, Diaspora eta Euskara.
- (2) Partehartze Hiritarra eta Hiritargoa 2.0
- (3) Lurralde Arauketa: LHL (Lurralde Historikoen Legea).

Euskal Geografien eta Euskal Hiriaren eta Herrixka Globalaren arteko botere eta eragimenezko harremanak dira. EUSKAL HIRIAK gainditu ez duen ikasgaia da. Euskal Hiria bere burua eratuz doan heinean Euskal Polisaren corpus batez hornitu behar dugu geure burua:

- Zer Zentraltasun-leku izan nahi dugu Mapa Globalean?
- Subjektua + Eusk. EZ da Hiria. Euskal Hiria da.
- Zer harreman nahi ditugu Euskal Geografien artean?
- Zer corpus juriidikoz hornituko dugu geure burua?
- Zer harreman izan nahi ditugu edo ez Estatu mugakideekin?
- Kanporanzko Proiekzioa: Nola diseinatuko dugu geure Kanporanzko Proiekzio instituzional, enpresarial eta zientifikoa herrixka globalean “tarte” bat geure buruari egiteko?
- Zer lurralde-arauketako mekanismoak behar ditugu barruan? Berrikusi eta berregin. LHL, Estatutua, Konstituzioa, Soberania, Autodeterminazioa...
- Hitz batean, nondik hasiko garen eraikitzen denon artean berriro Euskal Hiria.

Elkarri lotzen zaizkien gaiak:

1. Oraindik irudikatu eta kudeatu al dezakegu Diaspora Euskal Etxeak edo 1.0 bertsioan. Geografikoki Kohesionaturiko Komunitate Etnizista bezala? Ez al da honez gero garaia 2.0 Diaspora proposatzekoa? Hau da, Sare Sozial Hiritar Lurralde gabe Barreiatuak, Revival Kultural Tradizional-Folklorikoa gainditzten dutenak Euskal Identitate Kulturalaren Eraikitze Dinamikoaren bitartez Denbora Errealeko Remix Sorkuntzan oinarritua?
2. Euskara da Euskal Hiriaren Marka Handia zalantzarik gabe. Pasa al gaitzke 1.0 Euskaratik 2.0ra, hizkuntza despolitizatuz eta kudeatuz tresna eta forma aurreratuekin? Bestalde, horixe da merezi duena.
3. Erabateko Indarkeria-gabezia da Sine Qua Non baldintza Euskal Hirirako. Badirudi ZUZEN goazela AURRERA bide horretatik
4. Nola sortuko dugu Kultura Politiko Berri bat Aukera Ideologiko guztien Ordezkaritza Instituzional erabatekoarekin?
5. Kasu horretan, eta oraingo eszenatokian, Alderdien Legea ezda/ ez zen Gobernantza Demokratikorako oztopo bat besterik.
6. Partehartze-mekanismo berriak praktikan jartzetik hurbil al gaude E- Governance-aren barruan?
7. Zer gertatzen da 1983ko LHL Legearekin?

A.3. Euskal Hiriaren Geroko Bilakaera

Zein izan daiteke Euskal Hiriaren bilakaera³ etorkizunean?

URBS:

Euskal Geografien Sistema Hiritarrak bere garapen berezkoa izango du, desazeleratua eta giza eskalan zentratua.

Gaur eguneko krisi ekonomiko-finantzarioaren ondorioak honako hauetan nabarmenduko dira: (a)erabaki estrategikoak azpiegituren inbertsioetan, (b)baliabideen optimizazioa,(c)aldakuntza demografikoak, (d) hirigintza gorakor eta jasangarria, (e) soluzioak eskala txikietan derrigor bilatu beharra (Mikro-Lurraldeak), (f)kostuak murriztu behar ukaezina sarearen logika eta haren tresnak ezarriz, (g) austeritate kontsumista desiratua eta jasangarritasun energiakoaren eta elikadurazkoaren tokiko alternatibak, (h) desarrollismoari balazta eta deshazkuntza bideragarria⁴, *peak-oil*-aren kontzientzia eta komunitate lokaletako berreraketa eta (j) instituzioen arteko beharrezko lankidetzatza lurralde-tamainako proiektuetan.

Laburbilduz, hiri-eraketako estrategiek irtenbide jasangarriagoak eta gizatiarragoak proposatu behar dituzte iraganean baino era sortzaileagoan. Estrategia mugatuak azpiegiturak eraikitzeari eta ibilgetutako inbertsioei dagokienez baina intentsiboak pertsona-fluxuak eta haien behar sozialak mobilizatzen eta kudeatzen. Hala desiragarria da Euskal Geografien artean elkarrekiko dependentzia maila gehitzea harreman-fluxuen parez-pareko hazkuntzarekin.

CYBER:

Euskal Geografien Harreman Sistemak pentsaera-aldaketa handiak egin beharko ditu, beharrezkoak baitira barne- eta kanpo-fluxu guztien baliamentu baikorrerako.

Hurrengo belaunaldiek ez dute beren mundu sinboliko eta identitatezkoaren hain ikuspegi itxia aurkeztuko.

Aldi berean, nahastura eta irekidura bi zertzelada izan daitezke ingurunea behatzerakoan. Mugikortasunak eta konektibitate fisikoak aldakuntza handiak ekarri dituzte pertsonengana eta haien bizitzetara, bai eta ingurumenaz duten pertzepzioa ere: landa eta hiriaren arteko dikotomia faltsua pixkanaka gaindituz. Euskal Hiriaren erronka handi bat bien balio handiarekin bere burua eratzeko da eta tradizioaren eta modernotasunaren balioen kudeaketa egoki bat burutzeko. Horretarako, Euskal Hiriak Hiri-Sare bezala irispide guztiak eskuragarri izan behar ditu. Aspekturik konplikatuena, haren karga emozional eta historikoarengatik oraindik ere ehun moral eta gizatiarra birsortzea da kausa politikoarengatik hamarkadatan sortutako artxipelagoen ondorioz. Topalekuak eta desberdinen arteko zubiak dira epe laburrera kontrapozoi bakarrak dialektika hori gainditu eta beste eszenatoki posible eta aldi berean desiragarri batera aldatzeko.

3

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/hiripublika/urbs-polis-eta-civitas-i-hiriaren-gaineko-erabaki-estrategikoak-hiritarren-partaidetzalehenetsi-gabe> Euskal Hiriaren ekarpen interesgarria toki- eta udalerrri-mailan. Egileak proposatzen duen zentzuan Civitasek Polisaren gainetik egon beharko luke. Hau da, partehartze hiritarrak gobernantza formalaren maila gainditu beharko luke. Gainera Urbs-ak Polisaren eta Civitasaren mendean egon beharko luke. Funtsean Dublinen kasuan frogatu denez, zeren eta Urbsak garapen independente eta tenporal handiagoa izan behar du (Dublinen kasuan 10 urtekoa) eta Polisak, ondo dakigunez, 4 urte besterik ez ditu.

4

Linz, Manfred, Riechmann, Jorge y Sempere, Joaquim, Vivir (bien) con menos: sobre suficiencia y sostenibilidad, Barcelona, Icaria, 2007

CIVITAS:

Euskal Geografien Sistema Sozio-Kulturalak astingarri bat beharko du dagoen lozorrotik eta dagoeneko gizarte aitzinatua aurre egiten ari diren erronkei aurpegia ematea eragozten duten inertzietatik irteteko.

Berrikuntzaren, ekintzailtzaren, dibertsitate edo desberdintasunaren, ekimena, sormena eta tokikoaren balioaren aldeko diskurtsoen aurrean, ekintzak ez du laguntzen. Euskal Geografiek ezagutuko dituzten egitura-aldakuntzek osotasunera itzuliko diren neurri bizkor, ausart eta aurrerakoiak behar dituzte. Arazoa da aurreko belaunaldien inertzia hesi oso garaia dela, urratzen zaila. Euskal gizartea, demografiaz eta lurraldez duen tamaina txikiarengatik, egoera ezin hobean dago eskalak eskaintzen dion aukeraz baliatzeko.

Geroari begira, egitura ekonomiko-sozialak pixkanaka aldatu egingo du lan-harremana, egoitza eta pertsonen bizitza. Bizi-estiloen mosaikoa eta pertsonen dituzten harremanak bizi-barrutietan aldatu egingo dira.

Euskal Hiriak mobilizatu egin beharko luke bere osaera sozio-kultural aldakorra bere gerorako aktibo garrantzitsuenetako bat bezala, baliabideetan ahula delako eta mendekotasun handia duelako. Burokratizaziotik ihes egin eta dinamismoa bultzatu beharko luke. Horretarako, Gizarte Berrikuntza bat behar du zalantzarik gabe Eraldaketa Soziala dakarrena, Hezkuntza, Immigrazioa, Enpresa, Instituzio Publikoak eta Gizarte Zibilaren elkarte-munduaren eremuetan Komunitate Lokalen mailan.

POLIS:

Euskal Geografien Sistema Sozio-Politikoak aldatu egin beharko da bere buruari eratzten uzten ez dioten efektu ezkor eta kaltegarrietan.

Efizientzia hutsezko irizpideekin egindako berrikuste administratibo posible bat, badirudi gomendagarria izango litzatekeela. Bestalde, egitura juridiko-politiko eztabaidapean ezar liteke elkarrizketa irekirako aukera bezala inolako betorik eta eskusibitaterik gabe ezain alderditatik, eta horrek inolako zalantzarik gabe Gobernantza Demokratikoko eta Normalizazio Politikoko eszenatoki bat eragingo luke, haren gainean genesi berri bat fundatzeko kultura politiko partehartzezko eta elkarbizitzazkorako.

Hitz batean, Euskal Hiriak bide eta aukera eman behar die Euskal Geografietan dauden eratze-estrategia ideologiko guztiei eta bakoitzari. Halako moldez, non Sistema Sozio-Politikoa joko askearen eta eguneroko praxi politikoaren ondorio bat izango den. Hori guztia, jakina, indarkeria politikoaren erabateko gabeziaren sine qua non baldintzarekin.

Azkenik, Euskal Hiria beharrezkoa da ezagutua izatea eta mapa globalean horrela kanpo-proiektzio bat izatea. Geroko eszenatokian, euskara dagoeneko jokatzen ari da, baina gero eta paper nagusiago eta nabarmenagoa izango du, haren proiektzorako tresna eta joera aurreratuak kontuan hartuz kudeaketa egingo den neurrian. Euskal Hiriaren diaspora-dimentsioa edukiz eta formaz

berreskuratu eta berritu beharreko beste elementu handi bat da. Diaspora izango da zalantzarik gabe Euskal Hiria izatera irits daitekeena handitu eta baldintzatuko duen dimentsioa.

B. Han

B.1. Lurralde Benchmarking Konparatua. 2 Hiri-Erregio kasuak.

B.1.1. Dublin⁵ (IRE, EB): Hiri-Erregio Konektatu eta Sortzailea

*The Irish are the blacks of Europe. And Dubliners are the blacks of Ireland.
And the Northside Dubliners are the blacks of Dublin.
So say it once, say it loud:
I'm black and I'm proud.*

The Commitments
Jimmy Rabbite

When I die Dublin will be written in my heart.

James Joyce

*Sometimes I need your revelation, Sometimes it's all too hard to take
And sometimes I need a revelation, But this time I'm making my own now*

The Frames
Glen Hansard

Ondoren, era laburtuan aurkezten ditugu Dublingo Hiri-Erregiorako Gizarte Berrikuntzatik hurbilpenarekin lerrokatzen diren zertzeladetako batzuk, arreta berezia jarritz Sormenean eta Konektibitatean, *benchmarking* faktore bezala. Aldez aurretik dokumentazioa analizatu, kasuak aztertu, elkarrizketak eta zuzeneko behaketa egin, eta jasotako informazioa landu eta gero, honela aurkeztea gustatuko litzaidake:

B.1.1.1. Deskripzioa

Seguru asko Richard Florida izan zen Van Morrison⁶, U2 eta *High-Tech*⁷ en hiriburuko egonaldi eta esperientzia ugarietatik neronek behatzen ari nintzen zerbaiten berri testigantza eman zuena. Eta izan ere 2000 urtetan zehar gaur eguna, 2010 arte, askotan joan izan naiz Dublinera Irlandaren hiriburua pairatzen ari den aldaketa jarraituak eta eraldaketa sakonak behatuz. Aldakuntza horiek, zentzu askotan bidea argitzen ari zaizkigu Hiri-Erregio posible baterantz, zeinek Sormen eta Konektibitatezko atributu benetakoak dituen.

Literatura aztertu, zegozkion bisitaldiak egin eta pertsona gakoekin Dublinen kasuaz elkarrizketak egin ondoren, esan dezakegu azaleratze hori "*Tigre Zelta*" efektuaren ondorioa izan dela, hala deitzen baitiote ekonomialariek ELGE barruko herrialde garatueta ekonomietako hazkuntza azeleratu garrantzitsuenaz izendatzeko. Funtsean munduko 25 teknologia-enpresa garrantzitsuenek 19k

5

Berriki erreferentzia bat argitaratu da eta bertan Dublinen eta haren birmoldaketa handiaren ikuspen bat burutzen duena, krisialdi betearen, zeinek hartu baitu Irlanda "urakanaren begian" eta EBak hura erreskatatzeko beharrean. Kearns, Paul y Ruimy, Motti, Redrawing Dublin, Oysterhaven, Gandon Ed., 2010



7. figura

Dublin City: Liffey River

6

Floridak laprast egiten du Van Morrison musikariaren aipua egin eta jatorriz Dublingoa dela esatean, Belfast-ekoa baita. http://es.wikipedia.org/wiki/Van_Morrison

7

Florida, Richard, *The Rise of the Creative Class*, National Bestseller, 2004, 1ª Edición, s.l., Basic Book. pp. 300-302.

Irlandan izatea I+G-ko beren zentroak edo ekoizpen-plantak garrantzitsua izan da unibertsitateek gara ahal izan ditzaten gradu ondoko programak gai asoziatuetan. Horren ondorio bezala, sistema hezitzaile-unibertsitarioak azken hamarkadetan abantaila lehiakor nabariarekin prestatu ditu pertsonak teknologia-alorretan.

8
Vegara, Alfonso, Territorios
inteligentes: Nuevos horizontes del
urbanismo, Madrid, Fundación
Metrópoli, 2004

Bestalde, Vegara-k⁸ adierazten duen bezala, asmatze estrategikoek eta abagune ekonomiko aldekoek ahalbidetu dute Dublingo Hiri-Erregioaren hirigintza-bilakaera guztia. Baina inolako zalantzarik gabe, City Manager-aren figura, aginpide handiarekin eta 8 urteko alditan aritzen dena, Lord Mayor-aren figuraz aparte, zeina batez ere ordezkari-tza instituzionaleko funtziotan aritzen baita, nabarmentzea merezi duen benchmarking aspektuetako bat da. Abagune ekonomiko aldekoa, Europa integrazioa, Europa funts estrukturalak xurgatzea eta IDA Ireland Agentzia, zeinek helburua Irlanda nazioartean sustatzea baita, osagai funtsezkoak dira kokamendu geopolitiko horretan. Enpresentzako

9
Krisi-aldian orain faktura pasatzen
ari da politika hori.

politika fiskal arina⁹ eta soldata-politika moderatuak tokiko profesionalentzat ere abantaila gehigarri bat izan da atzerriko enpresa-kapitala erakartzeko. Halaber, hizkuntza ingelesa ere bai eta EE.BBetako irlandar diasporaren balioa ere (beste kontinentera joan ziren zazpi milioi migratzaile), faktore erabakigarriak izan dira Irlanda finkatzeko eta zehatzago Dublin operazio-base bezala. Halaber, kolateralki, kausa-efektuzko harreman noranzko-bikoa bezala Ipar Irlandako bake-prozesua izan da eta Ostiral Santuko Hitzarmena, bai eta hirigintza-politikak eta lurzorua prestatua izatea ere goi-teknologiako industriak eta Digital Hub¹⁰ bezalako proiektu paradigmaticoak ezartzeko.

10
O'Connor, Joyce, Dublin Creative
City Region, 2007. (ppt) <http://www.thedigitalhub.com>



8. figura

Dublin City-Region.


Iturria: Dublin City, Funding the
Dublin City Region, 2009. 17. or.

11
Fundación Metrópoli, Building
a Sustainable Future, Madrid,
Fundación Metrópoli, 2006. ISBN:
84-609-9743-X. Pag. 60

Nolanahi ere dena ez dago era baikorren¹¹. Dublin Hiri-Erregio bezala oraintxe bertan atzeman dituen hiru arazori aurre egin beharrean dago: etxebizitza eskuragarriak, trafikoaren kongestioa eta herbarrenak (sprawl). Halaber, kontsidera dezakegu barne-arazoak hauteman izana abantaila lehiakorrekoko kokamendu bat dela oraindik autodiagnosi hori egin ez duenaren aldean.

Baina, zein da Dublingo Hiri-Erregioaren kokagunea EBaren testuinguruan?

Ondoren, laburki eta kokagune estrategikoa Sormena eta Konektibitatearen gaian harremanetan jarriz, horretan ari baikara orain, Irlanda herrialde bezala bi *ranking*-etan nola dagoen erakutsiko dut.



9. figura

Euro-Creativity Matrix

Iturria: Florida, Richard, and Tinagli, Irene, Europe in the Creative Age, London, Demos, 2004 39. or.

a. Euro-Creativity Index, Richard Florida¹², edo Klase Sortzaileen hurbilpena (hala ezagutzen baita), “**softagoak**” edo ukiezinagoak diren analisi-elementu batzuetatik abiatzen da. Talentua, Teknologia eta Tolerantzia faktoreei kontu eginez, Irlanda herrialde oso “**euro-sortzaile**” bezala ikusia izateko joerarekin agertzen da. Beraz, “**soft**” edo Sormeneko aldagaiari dagokionez, kokagune baikorra du.

b. European Innovation Scoreboard 2008. Nire proposamena izaera teknologikoagoa duen Berrikuntza-eremutik agian erabiltzen den European Innovation Scoreboard 2008ekin erabiltzen den analisiarekin konparatzea proposatzen dut. Teknologia-berrikuntzarekin, patenteekin eta ekintzailetzarekin erlazionatuagoak diren faktoreei kontu eginez, esan genezake Irlanda ez dela agertzen abangoardia nordikoarekin harremanetan.

12

Florida, Richard, and Tinagli, Irene, Europe in the Creative Age, London, Demos, 2004

Figura 10

European Innovation Scoreboard

(EIS) European

Iturria: European Union, European

Innovation Scoreboard (EIS) 2009-

ProInnoEurope, Paper N°15.

European Commission, 2010. 5. or.



13

European Union Regional Policy,

State of European Cities Report-

Adding Value To The European

Urban Audit, European Commission,

2007

14

Jokalarari txikiak Politika definitzeko

eta norbere baliabideak kudeatzeko

gaitasuna duten erregio-guneak.

European, fenomeno honek länder

alemaniarretan eta austriarretan

du bere isla, bai eta Valonia eta

Flandesko erregio belgikarretan

ere. Euskadi bera ere kategoria

horren barruan sailka daiteke

autokudeaketarako duen

gaitasunarengatik.

Azua, Jon, Clusterizar y globalizar

la economía. Editorial Oveja Negra


– Quintero Editores. Bogota, 2008.

Azua, Jon, Proyecto Cities-Euskadi

Ciudad Global (Informe Arthur

Andersen). 2005. 8. or.


Laburbilduz, kokagunea badirudi interesgarriagoa dela Sormenari dagokionez Konektibitateari baino. Laburki beha dezakegunez¹³, 1996-2001 aldian, biztanleria-aldakuntza EBeko handienetako bat izan da (Ikus 11. Figura); batez besteko aberastasuna *per capita* BPGean Europa nodo garrantzitsuenetan bezala gehitu du (Ikus 12. Figura); eta azkenik, nodo globalari dagokionez, ezin dezakegu esan lehen kokaguneetan dagoenik, hiri “*ahaltso*” bat ez delarik (Ikus 13. Figura). Hona hemen irekita *Global Cities* eta Tarteko Hiri edo “*second division cities*”i buruzko debatea, mapa globalean tarteko Hiri-Erregioen abantailak aldarrikatzen norbait ari den heinean. Jon Azuak dioenez, Dublin izan daiteke Euskal Hiri bezalako “*jokalarari txiki*”¹⁴, horietako bat.



11. figura

Biztanleria Aldakuntza Europan eta Dublino

Iturria: European Union Regional Policy, State of European Cities Report- Adding Value To The European Urban Audit, European Commission, 2007. 11. or.




12. figura

BPGaren Bariazioa Europan eta Dublino

Iturria: European Union Regional Policy, State of European Cities Report- Adding Value To The European Urban Audit, European Commission, 2007. 34. or.


13. figura

Figura.- Hirien Boterea Europan eta Dublinen
 Dublino
 Iturria: European Union Regional Policy, State of European Cities Report- Adding Value To The European Urban Audit, European Commission, 2007. XVII. or.



14. figura

Hiri Tipoen Kokamendua
 Iturria: European Union Regional Policy, State of European Cities Report- Adding Value To The European Urban Audit, European Commission, 2007. X. or.



Edo, honako sailkapenak inspiratzen duenez, KNOWLEDGE-HUB tipoko Hiri-Erregioaz hitz egingo genuke Dublinez.


Sail honen xedea ez da Dublingo Hiri-Erregioaren kasuaren ikuspen xehatu bat ematea. Baina atsegina nuke, *grosso modo*, berriki mapeatu duen Hiri-Erregio polizentrikoaren klusterren ikuspena ekartzea. Ikuspegi eskematiko horrekin (Ikus 14. Figura) ideia xume bat atera dezakegu *benchmarking* eskeman agertuko denarena bukaeran. Nabarmentzekoak: (1) hiru korridoreak, (2) biztanleria-guneak, (3) kluster-adibideak gorantz datozen sektoreetan eta (4) estatu-ekonomiako inpaktua eta nazioartearen eragina.

Dokumentu honetan bertan daude helburu estrategikoak, zeinek egiten baitute Dublingo Hiri-Erregioa lerrokatua egotea Hiriaren ikuspen Konektatu eta Sortzaile horrekin¹⁵. Ikuspena honako hau da:

- Hiri-Erregio dinamiko bibrakor bat izatea, segurua, garbia eta berdea.
- Irekitasuna, dibertsitatea, sormena eta berdintasuna sustatzea.
- Profesional /talentu gazte oso kualifikatua erakartzea.
- Berrikuntza eta ekintzaitzako zentro bat izatea.
- Multinazionalak erakartzea haien planta erregional eta global bihurtzeko.
- Gobernu-lidergo bat izatea.
- I+G-ean lehiakor izatea.
- Arrisku-kapitalarekiko erabilgarritasuna eta irispidea izatea.
- Hazkorra IKTetan.
- Ingurumen-erregulazioko ingurune eraginkor bat duena.

15

Idem. 13.or.



15. figura

Korridore Ekonomikoa eta Klusterrak Dublingo Hiri-Erregio Polizentrikoan

Iturria: Dublin City, Economic Development Action Plan for the Dublin City Region, July 2009.

23.or.



16. figura

Airetiko eta portuaren ikuspegiak
Dublingo Hiri-Erregioan
Iturria: Dublin City, Funding the
Dublin City Region, 2009. 40.or.


16

Funtsean 250.000 biztanleko
hazkuntza gehiago 2013rako,
440.000koa 2021erako eta jarduera
ekonomikoaren %50ekoa 2020rako

Dublingo Hiri-Erregioaren ikuspen makro hau bukatzeko, “*Funding the Dublin City Region*”, txostenean adierazten denez Hiri-Erregioa fundatzearen erronka handia honako hauen arabera planteatzen da: dagoen hazkuntzaren proiektzio demografikoa¹⁶, (2) azpiegitura egokien defizita biztanleriaren berrindartze horri mugikortasun halako bat eman diezaiokeena eta (3) ikusmira zabalarekin eta efizientziarekin aurreikusi eta kudeatu beharreko arazo sozial eta integrazio kulturaztunekin.

17. figura

Dublin eta Irlandako Hiri-Erregioko
Biztanleriaren Konparatiba Handia.
1841-2006 aldia
Iturria: CSO Census 2006,
Elaborado por Brian Hughes, Dublin
Institute of Technology




17

Hughes, Brian, Understanding and
Shaping the greater Dublin Area as
Ireland’s emerging city-state of the
21st century, Dublin Institute of
Technology, August 2008

17. Figuran ageri denez 1841-2006ko bilakaera demografikoari buruz, Hiri-Erregioak hazkuntza jasana izan du hasieratik eta horrek desberdindu egiten du Irlandako Estatu osoko biztanleriarekiko deshazkuntza jarraitutik. Hau da, Estatuak izan duen hazkuntza Dublinek xurgatu du¹⁷. Ondorioz, eta benchmarking-aren analisisian sartuz, Dublinek best-in-class izateko gaitasuna badu Hiri-Erregioari dagokionez deskribatzen saiatzen ari garen bi aspekturekin zuzeneko harremana duten bi eremutan garatu izanaren frogen ekarpena egiten duelako izango da.

1. Bultzatu eta bide eman Dublinen erronkari Hiri Digital edo Konektatu bezala, Barruti Berezi bat sortzearen bidez: (Konektibitatea)

• Digital Hub¹⁸



18

Digital Hub, The Development Plan, Dublin, 2003

Figura 18

Barruti Berezia Dublingo Hiri-
Erregioan: Digital Hub

Iturria: Digital Hub, The
Development Plan, Dublin, 2003.
4.or.

Ez dago inolako zalantzarik aurrekaririk gabeko laguntza instituzional, akademiko eta enpresariala izan duen proiektu enblematikoena Digital Hub dela: etapa digitaleko hiri-hobekuntzako proiektu anbiziotsua. Ez da bakarrik hirian erabili gabe zegoen parte bat era burutsuan berreskuratzea (lantegi zaharren eremua, Guinness alboan duena), baizik eta hiria eratzeko beste modu bat erdigunean enpresa-jarduera batekin hura bere onera ekartzeko gorantz datozen profesionalen mesedetan, tokioa eta globala den komunitate batean inpaktu nabariarekin. Berrikuntza, sormen, ikerkuntza, ekintzailtza eta unibertsitate-ikaskuntza, eta sektore digitaleko enpresa eta instituzioen zentro bat da. Digital Hub-ek sektorearen katalizatzaile izan behar du testuinguru tokiko batean jardunez ikuspegi globalekin. Digital Hub-en ikuspena oso argigarria da: Irlandan informazioko azpiegitura batzuk sortzean datza, ekonomia global batean murgilduriko sektore baten zaurgarritasunari kontrapisu egiteko gauza izango direnak.

Geroko proiektu bat da nazioarte-izaera duen enpresa-gune bat ezartzen duena, IKT berriei lotua. Kapital publiko eta pribatuarekin, Komunitate Lokaleko zentro bat da, pertenenziaren zentzu handiarekin. Hau da, ekimenak duen singularitasuna da (1) auzategi oso bat inkubategi bezala irudikatua izatea (2) eta tokiko mailan aritzen diren eragile desberdinen ikaskuntzara funtsean bideraturik egotea baina maila globaleko sareekin.

Benchmarking ariketa bezala galdera bat egin liteke Sormenaren atributurako: ikas al dezakegu zerbait Digital Hub-etik Tabakalerarako (TBK) balio dezakeena?

2. Hiri-berrikuntza Interakzio eta Sormen Guneetarako, lau kasu paradigmaticorekin: (Sormena)

19

http://en.wikipedia.org/wiki/Temple_Bar_Dublin

• *Temple Bar*¹⁹

Temple Bar-*ez*²⁰ laburbil dezakegu ekintza instituzional bat izan zela elkarrean hiri-partehartzearekin esparruaren hiri-berrikuntzarako. Hiriaren birsorkuntza tokiko dublindar estudio batek (Group 91) garatu zuen, zegokion lehiaketa publiko irabazi ondoren, zeinek proposatu baitzuen erabilera mistoak²¹ sustatuko ziren proiektu bat. Seguru asko praktikarik hoberenetako bat Jacobsen “*new ideas require old buildings*” deitua aplikatuz: zeuden baliozko eraikinak birgaitzea eta orube hutsak arkitektura berri egokiz osatzea, jatorrizko egitura errespetatuz eta beti erabilera mistoak sustatuz.

20

Kasua haren fase arkitektoniko eta obra-plangintzako guztietan agertzen da hemen: Neal, Peter, Urban Villages and the Making of Communities, London, 2003, Spon Press.212-215.

21

Jane Jacobs antropologo berritzaile eta abangoardistaren ideia nagusia.

22

Neal, Peter, Urban Villages and the Making of Communities, London, 2003, Spon Press.212-215

Gune zentriko batean, Trinity Collegeren ondean Parlamentua, Udala eta Christ Church katedrala Garate ziren; auzategia lantegiak eta artista bohemioak zituen leku dekadente bat zen. Hiriaren birsorkuntzak erdigune berri bat eragin zuen hiriarentzat eta bertan nagusi dira klase sortzaileak kultura-aparatuaz eta aisia sortuaz baliatzen diren turistak. Hiriei buruzko literatura konparatua²², eta areago Esparru Bereziei eta Komunitate Lokalei buruzkoan, Templeren kasua erreferentziatunetako bat da hiri bateko kultura-esparru bezala.

• *Smithfield Civic Centre*

Temple bar-en 1995 kasutik abiatuta, Dublinen ipar-mendebaldea birsortzea proposatzen da, ibaiaz bestaldean. Hala sortu zen *Historic Area Rejuvenation Project*, Smithfield Civic Space gune publiko askearen hasierako ekintzarekin.

• *Docklands*

Funtsean herrialdeko finantza-zerbitzuentzako gune bat sortzeko hiri-birsorkuntzari erantzuten dio. Zehatz esanik, *International Financial Services Centre* (IFSC) izenkoa birsortzeari.

• *Ballymun*

Seguru asko Hiri-Erregioaren alor metropolitanoaz kanpoko kasu bakarra da Ballymun da. Egiazki frogapen bat da hiri-sistemaren erdigunean bakarrik pentsatzen ez delakoarena, Alor metropolitanoan, baizik eta, benetan, hiriaren plangintza jasangarritasun eta gizarte-ekitatezko irizpideekin egiten ari zirelakoarena. Ballymun izango da seguru asko gunerik deprimituenetako bat ezin konta ahala gizarte-arazorekin²³. Eta bestalde, Belfastekiko interfaza den Dublinen parte da. Horregatik Ballymun hobetzea estrategia bat da Dublin eta Belfasten arteko korridoreak eta harreman-fluxuek tarteko harreman-puntu bat izan dezaten.

23

Hitz egin al dezakegu Cabrini Green batez? Xeheki azalduko da kasu hau paradigmaticoa baita Chicagon, birsortzen ari diren eta delinkuentzia eta marjinalismo-arazo oso handiak dituzten Barruti Bereziei dagokienez.

<http://en.wikipedia.org/wiki/Cabrini%20%80%93Green>

Hala, Ballymunen ikuspen estrategikoak farmazia-industriaren, IKTen eta finantzen ondoren hirugarren sektore garrantzitsuena den horren nodo bihurtzea bilatzen du. Hau da, unibertsitatearen inplikazioa duen hirigune bat bizi-zientzietan eta hura farmazia-industriari aplikatzen.

B.1.1.2. Benchmarking: Konektibitatea + Sormena²⁴


24

Esteban Galarza, María Soledad, Ugalde Sanchez, Miren Igone, Rodríguez Alvarez, Arantxa, Altuzarra Artola, Amaia, Territorios Inteligentes: Dimensiones y Experiencias Internacionales, La Coruña, Gesbiblo, 2008. 103-121 or.

DUBLIN	
BENCHMARKING-erako Faktoreak	
KONEKTIBITEA	SORMENA
0.- "Ostiral Santuko" Akordioa. Ipar Irlandako Bake-prozesua. Nazioartekoko estaldurak, iparramerikar inbertsioek beren baseak Irlandan ezarri eta gizarte-konektibotasuneko beste faktore mota batzuek eragin dute bertutezko zirkulu bat gainerako faktore guztiak abiarazteko.	3- Giza Kapitalean inbertsioa: Unibertsitateak inbertitzen eta gradu ondokotan espezializatzen, profesional kualifikatuak lortuz soslai globaleko sektore teknikoetan
1- Makoekonomikoa: "Tigre Zeitaren" igoera (Aldeko abagunea eta asmatze estrategikoak). Politika fiskal arina.	4- Irlandar unibertsitateak, EBeko Esparru Programatako ikerketa-programatan parte hartuz.
2- EKTen 19 enpresa garrantzitsu Irlandan: Kapital atzerritarra. Inbertsio atzerritarra teknologia-, finantza- eta farmazia-enpresatan nagusiki.	5- Klase sortzaileak eta gorantz datozen sektoreetako atzerritar profesionalak erakartzea.
6- Unibertsitatea-Enpresak-Ikerketa Zentrozen sistemaren arteko aliantza eta lankidetzak.	7.1.- Hiri-birsorkuntza Temple Bar kasua: Bottom-up partaidetza-prozesua, instituzio publikoekiko eta hiri-elkarteekiko lankidetzak. Erabilera Mistoekiko esparru bat lortzea.
7.3.- Hiri-birsorkuntza Dublin Digital Hub-en kasua. Hiri Konektatua/Digitala, hiri-esparru oso bat birsortzearen bitartez	7.2.- Hiri-birsorkuntza Smithfield Civic Centre kasua. Esparrua birsortzea helburu zibikoekin.
7.4.- Hiri-birsorkuntza Ballymun kasua. Belfast-Dublin korridorea eta bizi-zientzietan jarduerak ezartzea unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan, bai eta farmazia-sektoreko enpresetan ere. Dublingo hiri-sprawleko gizarte-arazoei irtenbide bat bilatzen saiatuz.	9- Hiri-habitat sortzailea: Kultura- eta arte-bizitza osoa aktiboa, hiritarren partaidetzarekin lotua.
8- City Manager-aren figura Lord Mayor-az apartekoa.	
10- Hiru Inhibitzaileen identifikazioa: Etxebizitza eskuragarria, trafikoko-kongestioa eta sprawl-a.	

19. figura

DUBLIN: Benchmarking faktoreak



20. figura

Dublin Kasuaren analisia: Benchmarking-erako Faktoreak Kolektibitateak eta Sormenetik

25

B.1.1.3. *Laburpen gisara* ²⁵

Gaur egun Hiri-Erregioaren errealitateari buruzko sintesirik hoberenetako bat hau da: Toby Scott eta Charlie Leadbeater: Scott, Toby y Leadbeater, Charlie, How Dublin can embrace Innovation: The role of innovation in sustaining competitive advantage and 10 rules for how we should invest in it, Conference 2009

26

Vegara, Alfonso, Territorios inteligentes: Nuevos horizontes del urbanismo, Madrid, Fundación Metrópoli, 2004. 261 or.

27

Rose, Kieran, Diversity Powering Dublin's Success. 2007. 15 or.

28

<http://www.glen.ie/>

29

Oso nabarmengarria eta interesgarria Fulbright Scholar in Residence Jack Pinkowskiren lana Dublingo emigratzaileen kolektiboaz eta ekintzailatza-mailaz. Pinkowski, Jack, Challenges and Promise for Immigrant Entrepreneurship in Dublin, Dublin City Council Economic Development Unit, 2009

Interesgarria iruditu zait hitzez hitz aipatzea²⁶ Dr. Vegarak Dublinez, nire ikuspuntutik, burutzen duen laburpen bikaina (Elkarrizketak, bilaketa bibliografiko eta kalean bilaketa etnografikoa egin ondoren, izenpetu egin dezaket eta oraindik aurkeztutakoaren froga gehiago eman ere eman nitzake):

“Edukitzaille zaharraren aldakortasunak eta teknologia berriak hedatzeak aukera ematen dute gune zaharretan erabilera berriak gaitzeko, leku pribilegiatuak sortuz. Dublinen kasuak erakusten du alde batetik jokabide jarraitu eta bokantza goraturik gabea, ekimen ugartasun handikoa, zeinetan ondarean jasotako eraikinak eta dagoen hiriko hiri-ehunak berritzea argudio iraunkorrak baitira. Baina aurrera egitea ahalbidetzen duena erabilerak bilatzen eta ekintza publikoaren eta ekimen pribatuaren konbinazioan dagoen adimena da, plangintza negoziatua bezalako tresna-sail batean, política fiskalirekian edo enpresak sustatzeko estrategia eraginkor batean oinarritua.”

Dublina buruzko saioa bukatzeko, Hiri Erregioa ikasteko kasu konektatu eta sortzaile bezala, Kieran Rosek²⁷ Dublin City Councilen Planner eta GLEN²⁸ (Gay and Lesbian Equality Network) Elkarteko chairperson denak bere hitzaldia amaitzeko Richard Florida egilearen aurrean erabili zuen aipua erabili nahiko nuke.

Haren aipua atera badut zinez ikuspen prospektiboa dela uste dudalako da baina aldi berean eraldatze-prozesuak Dublina ezarriko dizkion erronka²⁹ berriekiko irrealista, eta ausartzen naiz esatera, palanka efektuz, Irlanda guztiari ere ezarriko dizkiola, izan ere gizarte tradizional gutxi industrializatu bat izatetik lehen sektorearekin eta turismoarekin aberastasun eta BPGaren ardatz gisara gizarte postindustrial eta ezagutzakora igaro baita, gero eta kualifikatuagoa eta globalagoa den giza kapitaleko enpresa teknologikoetan intentsiboa den batera. Kieran Roseren ikuspen horrek Dublingo Hiri-Erregioaren geroko giza geografiaz hitz egiten digu. Giza geografia horrek, egiten dudana bisita bakoitzean, halakoa dela erakusten du, eta seguru asko prozesua atzerazina dela. Garrantzia duena, beraz, etorkizuneko eszenatoki horren aukerez eta mehatxuez jabeturik egotea da.

(...)

In his wonderful study Cities in Civilization on the evolution of great world creative cities such as Los Angeles, London, New York and other cities; Peter Hall asks the question what the next global creative city will be and concludes that it will be:

A SPECIAL KIND OF CITY, A CITY IN ECONOMIC AND SOCIAL FLUX WITH LARGE NUMBERS OF NEW AND YOUNG ARRIVALS, MIXING AND MERGING INTO A NEW KIND OF SOCIETY.

This sounds like Dublin, it could be Dublin, but only if we get rid of our limiting mind-sets and are ambitious, open and determined to succeed.

(...)

B.1.2. Portland (OR, EE.UU.): Hiri-Erregio Jasangarri eta Parte-hartzailea

*In Portland, everyone has at least three Identities:
grocery store checker, archaeologist, biker guy...or poet, drag queen and
bookstore clerk.*



Fugitives&Refugees
Chuck Palahniuk

21. figura

Portland Hiri-Erregioa

*Take a long drive with me, on California one, and the road, a-winding goes
from golden gate to roaring cliff-side.*

The Decemberists
Colin Meloy

Ondoren, era laburtuan Portlandeko Hiri-Erregiorako Gizarte Berrikuntzako ekarpenarekin lerrokatzen diren zertzeladetako batzuk aurkezten ditugu, arreta berezia eskainiz Jasangarritasunari (Komunitatea) eta Partehartzeari benchmarking faktore bezala. Aldez aurretik dokumentazioa aztertu, kasuak aztertu, elkarrizketak egin eta zuzeneko behaketaren³⁰, eta jasotako informazioa aztertu ondoren³¹, honetara aurkeztea gustatuko litzaidake:

B.1.2.1. Deskripzioa

**22. figura**

Portland-eko Downtown-a: "New Ideas
Require Old Buildings" (J. Jacobs)

Oso bitxia da Portlandeko downtowna iristean norberak duen lehen sentipena: erabateko kontrastea hiri askotako bizitzarekiko batez besteko erreferentziari dagokionez, gutxienez mendebaldeko kostaldeaz ari bagara behintzat. Datu anekdotiko soil bat: ea autoa³² aparketzerik ba ote zegoen galdetzean, oinezkoek ez zidaten inolako erantzunik eman, denak bizikletaz horniturik edo TRIMETaren³³ geralekuren batetik etorri berriak zirelarik. Hortik aurrera dena ezusteko atsegina izan zen. Bizimodu lasai, energia eta kirol-espirtutik, kulturarekiko interesa (literario eta musikala) eta lehen begiradan nabarmendu dezakegun hiria-landa arteko nahastura. Gainerakoa, esploratzen jarraitzea da eta beren ingurunea aztertzen duten pertsonen elkarrizketak egitea.

30

EE.BB. etako hiri desberdinak behatu eta aztertzeak zalantzarik gabe eraman naute baztertzera Los Angeles, Phoenix, Reno... hiriak, ez baitut kontsideratzen best-in-class hirien ideiarekin lerrokatzen direnik Hiri Jasangarri eta Parte-hartzaileak izateari dagokienez. Baina era paradoxikoan, Portland, Seattle eta San Francisco BayArea (zehatz esateko, Silicon Valley) nire arreta erakarri dute, halako moldez, non buru-belarri murgildu bainaiz aztertzen zergatik hiri horiek garapen desberdin batera iritsi diren (eta gaur egun, egokitzen jokoko gendake amerikarren joera desarrollistaren barruan) homonimoenaren aldean. UGB edo Growth Management gakoak, Portlandek garatuak eta Boise (Idaho) edo Salt Lake City (Utah) bigarren hiriek jarraituak interes handienekotzat jotzen ditudan aspektuak dira proiektu honetarako. Nahiz eta europar hirigintza-eredua amerikarra baino hurbilago dagoen Euskal Hiriaren kasutik, ez dago zalantzarik, interesgarria irudituz zait ikuspuntu zabalago batetik eta errealitate gehiago bereiztea,

horrela gaur egun EHAEan aurki ditzakegun dialektikak behatzeko eredu desarrollistez jasangarritasun, klima-aldaketa eta hiritarren partehartze gakoan. Azken hiru aspektu horiek uste dut funtsezkoak izango direla

31

Portland Development Commision, Fact Book: Portland Metropolitan Region Fact Book, Portland, 2008

32

Beste storytelling o hiri-kontakizun bat irakurlearentzat argigarria iruditu zaidana : <http://planologie.wordpress.com/2010/01/29/seattle-vancouver-and-portland-by-rail-bus-streetcar-and-foot-part-three/>

33

<http://trimet.org/>

34

Txosten interesgarria hiri desberdinen kokagune konparatiboa erakusten duena: Center for Sustainable Systems- University of Michigan, US Cities Factsheet, 2009. No. CSS09-06. http://css.snre.umich.edu/css_doc/CSS09-06.pdf

35

<http://www.sustainlane.com/us-city-rankings/overall-rankings>

Baina zer leku hartzen du Portlandeko Hiri-Erregioak EE.BB.en testuinguruan?³⁴

Datu batekin hasteko, nabarmentzekoa da *2008 US City Sustainability Ranking*³⁵eko, hiru Hiri-Erregioren jasangarritasun-hurrenkera hau:


Portland (Oregon)
San Francisco (California)
Seattle (Washington)

Population 2008 IN MILLIONS	Minority population growth 2000-2008	B.A. or higher % OF RESIDENTS 25 OR OLDER	Brain gain ATTRACTION AND RETENTION OF 18- TO 34-YEAR-OLD TALENT % OVER U.S. AVERAGE	Artists, entertainers PER 100K RESIDENTS	Gays and lesbians SAME-SEX COUPLE DENSITY INDEX NATIONAL AVERAGE = 1.0
L.A. 12.9	Austin 37.8%	San Jose 43.4%	Denver 78%	San Francisco 1,630	National Average = 1.0
San Francisco 4.2	Sacramento 35.9%	San Francisco 42.4%	Seattle 47%	L.A. 1,598	San Francisco 2.1
Seattle 3.4	Greater Portland 33.8%	Austin 38.8%	San Francisco 41%	Austin 1,423	Greater Portland 1.56
San Diego 2.9	Denver 28.1%	Seattle 36.1%	Greater Portland 39%	Greater Portland 1,254	Austin 1.41
Denver 2.5	Seattle 27.8%	Denver 35.6%	San Jose 37%	Seattle 1,240	Seattle 1.36
Greater Portland 2.2	Albuquerque 24%	San Diego 33.3%	Austin 28%	Denver 1,058	San Diego 1.36
Sacramento 2.1	San Jose 19.3%	Greater Portland 31.9%	San Diego 16%	San Diego 1,040	Denver 1.25
San Jose 1.8	San Diego 17.7%	Sacramento 29.6%	Albuquerque 3%	Albuquerque 972	Albuquerque 1.2
Austin 1.6	L.A. 13.1%	Albuquerque 29.3%	Sacramento 2%	San Jose 954	Sacramento 1.19
Albuquerque 0.8	San Francisco 11.8%	L.A. 29.3%	L.A. 0%	Sacramento 764	L.A. 1.19
SOURCE: GLOBAL INSIGHT 2008	SOURCE: CLARITAS 2008	SOURCE: U.S. CENSUS, AMERICAN COMMUNITY SURVEY 2006	SOURCE: U.S. CENSUS, AMERICAN COMMUNITY SURVEY 2006	SOURCE: U.S. CENSUS, AMERICAN COMMUNITY SURVEY 2006	SOURCE: U.S. CENSUS, AMERICAN COMMUNITY SURVEY 2006

23. figura

E.BB.etako Hirien Adierazle Konparatiboak
Iturria: Greenlight-Greater Portland, 2008 Greater Portland Prosperity: A regional outlook, 2008. 11. or.

Bestalde, 23 Figura aurkezten dut adierazle konparatibo batzuekin, izan ere funtsezkotzat jotzen ditut Hiri-Erregio baten Giza Geografia deskribatzeko. Ikus dezakegunez zutabetan ditugu adierazleak: (a) Biztanleria (b) Gutxiengo-biztanleriaren hazkuntza, (c) Giza Kapitala edo goi-ikasketen maila, (d) Talentua, (e) Sortzaileak, (f) Biztanleria homosexuala. Ageri denez Portlandek lehen mailako kokaguneak ditu beste hirien artean.



24. figura

EE.BB etako Mega-Erregioak:
 Portlandeko Hiri-Erregioa bere baitan hartzen duen Cascadia
Iturria: Urban America 2050

EE.BB etako lurralde- eta hiri-politika berrien oinarriak ezartzeko balio duen *Urban America 2050*³⁶ proiektua jarraituz, ondorengo 11 Megapolis edo Mega-Erregioen identifikazioarekin aurkitzen gara. Haien artean daude Seattle eta Portland beren baitan hartzen dituztenak EE.BB.etan eta Vancouver (British Columbia) Canadian; Cascadia³⁷ izendatua. Megapolis edo Mega-erregio honek Euskal Hiriak baino dimentsio handiagoa du eskalan, Hiri-Erregio bezala. Beraz, bi lurralde-eskalaz ari gara, bata bestearen barruan: Cascadia Megapolis edo Megaerregio bezala eta Portland Hiri-Erregio bezala³⁸. Dr. Seltzer-ek proposatzen du ez berdintzea Megapolis kontzeptua eta Cascadia, zeten uste baitu osatzen dituzten Hiri-Erregioek, Portland, Seattle eta Vancouver-ek bi ezaugarri desberdintzaile dituztela: (1) Landarekiko eta ingurune naturalarekiko bizikidetzaz (2) Mega-erregioa eraikitzea partehartze zibikoaren bitartez. Hitz batean, Cascadiako megalopolisa Ekopolis bezala berrizendaturik dago³⁹.

Gaur egun Ekopolis 3.0-ko ponentzian egiten ari diren galdera da: Zerk justifikatzen du 3 Hiri-Erregioen (Portland, Seattle eta Vancouver) baterako lana abiadura handiko trenaren inbertsioaren kasu zehatz batean?⁴⁰ Ildo horretatik, benchmarking-eko diagnostia egitera pasatu baino lehen, beharrezkoa dela uste dut gehiengo amerikarraren pentsamendu desarrollista eta idiosinkrasiaren barruan bertan ere Cascadiako hiritarrek berek duten autopertzepzioaren berezitasuna azpimarratzea.

Dr. Seltzer-ek erreferentzia hau egiten du: (Seltzer, 2008). “*aurkitu genuen hiritarrek uste zutela tokiko ardurek isla izan behar zutela eskala megarregionalean (Ekopolis 1.0). Aurrekoa esanik, konturatu ginen Cascadia laborategi eta berrikuntza-iturri gisara funtziona zezakeela beste hiri-erreferentziatarako nazioarte-mailan bizi-estilo baten praktika on bezala eta hiri-jasangarritasuneko garapen-jarraibide bezala. Oso kontuan edukiz hiri-jasangarritasunaren eta landa- eta eskualde-guneetan esku-hartzearen artean zubi bat ezarri behar zela (Ekopolis 2.0). Gure baliabideen mugak, erregio bezala genuen identitatea eta plangintza dinamikoak egiteko beharra, bi noranzkotan hasi ginen ikertzen: (1) Jasangarritasuna, ... (2) Fluxuak edo Konektibitatea: Pertsona, ondasun, material,*

36

<http://www.america2050.org/maps>

37

Artibise, Alan; Vernez Moudon, Anne; Seltzer, Ethan; Cascadia: An Emerging Regional Model, en: *Cities in Our Future*, Washington, Island Press, 1997. 147-173 or.

38

Portland erregioiko MSA Metropolitan Statistical Area guztia bere baitan hartuko lukeena. Gobernu propioa duen Hiri-Erregioa: METRO. <http://www.oregonmetro.gov>

39

Seltzer, Ethan et al, *Ekopolis 3.0: Infrastructure and Sustainability in Cascadia*, Portland, 2008, Portland State University. Pags.5-6. “*Ecopolis is a continental and global economic subunit that gets its identity and global “brand” identity from the unique Pacific Northwest bioregion and culture.*”
http://www.rpa.org/pdf/temp/America%202050%20Website/2008/Ecopolis3.0_Final.pdf

40 Euskal Hiriaren kasuan zentrala izan daitekeen aspektua Konektibitate fisikoa, AHTaren eta Euskal Y-aren inguruko arazoengatik. America 2050, Connecting Cascadia: A high-speed rail vision for the Pacific Northwest, Metro, 2010

41 Cabrini Green kasua aipatu beharko litzateke Chicagon (Illinois) Azterketarako kasu bat bat da eta kontatzen du aurpegi kontraesankor, gogor baina interesgarria ere badena, nola barruti gatazkatsu batek eralda dezakeen bere burua delinkuentzia ghetizatze-arazoak konponduz amets amerikarraren bihotzean. Cabrini Green amets amerikarraren iraganeko, orainaldiko eta geroko historia bat izna liteke baina aldi berean esperantzagarria <http://www.youtube.com/watch?v=vlTfR74Xk2M&feature=related>

42 <http://www.portlandonline.com/portlandplan/>

43 Seltzer, Ethan et al, Ecolopolis 4.0: Livability in Cascadia, Portland, 2009, Portland State University. http://www.america2050.org/upload/2010/04/Ecolopolis4.0_Final.pdf

44 Ildo horretatik²⁰ minutu auzategiak²⁰ ekimena nabarmendu behar da, izan ere jasangarritasun handiena bilatzen du hiri-eskalaren mailarik mikroenean. <http://www.plataformaurbana.cl/archive/2010/08/16/plan-portland-%E2%80%9Cbarrios-20-minutos%E2%80%9D/>


informazio, ideia eta abarren mugimendua (Ekolopolis 3.0) Azkenik, hiri-berrikuntzako ereduetan izan genezakeen eragimena ikusirik gobernu federalaren eta Cascadiako Megalopolisaren bitartez, desberdintasunak behatzen hasi ginen erreferente izan ahal izateko Jasangarritasunean eta Partehartzean USA eskalan”.

Beha dezakegunez, Cascadia Mega-erregio bezala, Oregon Estatu federal bezala eta Portland Hiri-Erregioa UGB sortu zuen efektu epidemiko eta jatorrizko batek arrastatu zituen. Hortik aurrera lerro bat ireki da dagoeneko erreferente dena EE.BB.en⁴¹ eskalan eta nazioartean ere bai. Gaur egun dagoeneko badira bi planteamendu prospektibo, zeinetan ez baitut sakonduko arrazoi pragmatiko hutsengatik, ikuspen laburtu eta ordezkatzailatzeko bat emateko Portland interesatzen denaz analisiaren bi atribututatik: Jasangarritasuna eta Partehartzea. Lehena Portland Plan⁴² da, geroko ikuspen bat izan nahi duena stakeholder desberdinen partehartze aktiboarekin. Proiektu hori 2.0 tresnekin diseinatu da eta dinamika partaide zibil digital eta presentzial bat bultzatzeko bokazio argi batekin. Bigarrena Ekolopolis Proiektua⁴³ da bere 4.0 edizioan doana eta inolako zalantzarik gabe lan-lerro berrita irekitzen ari dena Mega-erregioaren eskala makro batetik, Hiri-Erregiotik pasatuz eta auzategien eta esparruen maila hipertokikora iritsiz⁴⁴.

Zein dira Portland-en⁴⁵ hiru ardatz nagusiak?

1. Portland Hiri Jasangarri bezala eratuz joan dadin lortzeko Ardatz nagusia:

- *Urban Growth Boundary (UGB)*




25. figura
Portlandeko downtownen ikuspegia, Hawthorne zubitik

Dr. Ethan Seltzer-entzat⁴⁶, zeinek Portland zergatik den kasu paradigmatico bat⁴⁷ galderaren aurrean *Urban Growth Boundary (UGB)* historiaz hitz egiten baitigu, Portland eta Oregonek egin zuten desbideratzeaz desarrollismo kapitalista azeleratuaren “*meanstream*” handiaren aurrez aurre, zeinek eraman baitzuten Los Angeles eta Phoenix hiriak (besteak beste), hiri-dekadentzia handira eta etorkizunera itzultzeko leku zailera, zeren eta hazkuntza moderatu eta jasangarriago bat behar baitzuten. UGBaren printzipioak⁴⁸ honako hauek dira: (a) Hiri-hedapenaren lokalizazioa eta izaera administratu. (b)

Ingurumenaren baliabide naturalak, nolakotasunak eta ezaugarriak kontserbatu. (c) Komunitateari azpiegitura- eta zerbitzu-sistema egoki bat segurtatu. (d) Nahi den komunitate-bizitzaren kalitatea kontserbatu edo sortu. (e) Aukera ekonomikoak eta gizarte-ekitatea hobetu. (f) Tokiko garapena bideratu erregio-eta estatu-sistemekiko bere harremanetan.

60. urteen bukaeran, zerbait gertatu zen Portlanden: gazteak eta hain gazteak ez zirenak arazo zibikoen aldeko konplizitate batzuk ehuntzen hasi ziren. Hiri osoa gelditu balitz bezalako zerbait Zen gainerako hiriak beren hiri-plangintza ezartzen ohiturik zeuden abiaduraren aurrean, gauzak nola egin behar ziren munduari esateko. Portland bere bihotzetik hasi zen: 60. urteetan bere *downtown*ean plangintza-prozesu bat egitetik hasi zen. Oso prozesu partaidea izan zen, older handikoa balioak, arkitektura eta ondare historikoa preserbatzerakoan, baina aldi berean etorkizunarekiko begirada bisionario eta prospektiboarekin. Adibide bezala, 1972ko downtowneko Hirigintza-Planak baztertu egin zuen erabateko aurkaritzaz parking bat eraikitzea gaur egun Pioneer Courthouse Square dagoen tokian. Plana hiritarrengan gehiago zentratzen zen automobiletan baino. Portlandek markatu zuen Oregonentzako kontsigna: 1973an, UGB estatu osoko legerian aplikatu zen *Friends of Oregon*⁴⁹, elkarte sortuz, halako moldez, non ahotsa eta botoa ematen baitzitzaien estatuko hiritarrei lurzoru- eta ingurumen-politiketan. Etorkizun-ikuspena eta kritika, plangintza eta hazkuntza jasangarri eta moderatua, lurraren erabileraren preserbazioa eta kontserbazioa, *sprawl*-aren kontentzioa, legeria eta inplikazio zibikoa, izan ziren oinarriak 60-70 urteetan Portlanden zimentuak ezartzeko gaur ezagutzen dugun hiri paradigmatico bezala.



26. figura

Guztizko Biztanleriaren
Tamaina Alor
Metropolitanoetan
Iturria: PDC

Agian bidezkoa izango da Portlandeko abangoardiaren eta hiri eredugarriaren aipamena egitea EE.BBetako praktika onen gune bezala UGBren azpian (Vegara, 2004)⁵⁰:

“*Ian McHarg bezalako aitzindarien lanarekin hasten dira gauzatzen lurzoruaren erabileren plangintzaren estrategien berraktibatzea USAn, zeinen gakoetako bat eredu suburbanoaren –sprawl- arabera hazteko obsesioaren kontraesanak agerian*

45

Zalantzarik gabe, Portlandeko kasuaren laburpenik hoberena honako erreferentzia honetan, haren egileekin kontrastatua izan den horretan eta egokiago iruditu zait elkarrizketen bitartez jarraitzea, fenomenoaren ekarpen laburtuago eta eguneratuagoaren ekarpena egiten baitute: Ozawa, Connie P., *The Portland Edge: Challenges and Successes in Growing Communities*, s.l., 2004, Island Press. 9-33 or.

46

Nohad A. Toulan School of Urban Studies and Planning-en Zuzendaria Portland State University PSU-n. Seltzer, Ethan, *Maintaining the Working Landscape: The Portland Metro Urban Boundary*, Portland, 2008, Portland State University

47

<http://bustownoh.com/content/lessons-learned-portland-and-toronto>

48

Vegara, Alfonso, *Territorios inteligentes: Nuevos horizontes del urbanismo*, Madrid, Fundación Metrópoli, 2004. 226 or.

49

<http://www.friends.org/>

50

Vegara, Alfonso, *Territorios inteligentes: Nuevos horizontes del urbanismo*, Madrid, Fundación Metrópoli, 2004. 225 or.

jartzean baitago. Iraultza lasai bat hasten da lurralde-plangintzan National Forest edo US Soil Conservation Service zerbitzu federalen gerizapean, zeinek aurre hartu baitzieten jasangarritasun edo ekogarapen ideiei eta teknika aktiboak sutatzen baitzituzten hiri-hazkuntza eta haren eragin ezkorrak moderatzeko: Hawaii, Vermont, Maine, Oregon, San Francisco Bay Area, Massachussets dira estatu sentiberenak. Sendotuz doa lurraldearen garapena eraiki behar den kontzientzia, haren balio naturalekiko errespetuan eta hazkuntza eta eraldaketaren kontrol baikor batekin, izan ere plangintzak erabiltzen dituen tekniken multzoari Growth Management deitzen zaio.”

Portlandeko *downtown* hain ereduakoaren ondotik, Oregon haren estatu berdea dator. Itsasoari begira dagoen estatu baten erdiguneko hiri bat. Ibai bat⁵¹, Willamette, Portland bitan banatuz. Hiri-mugikortasuneko jarraibidea ohiturazkoa biziletan eta jogging egiten ari diren pertsonen eratzan dute Hawthorne edo Ironbridge zubiak gurutzatuz. Nike, North Face, Adidas, Columbia tokiko brand (*activewear*) direla egiaztatzeaz gainera, arazoirentzat batengatik iker genitzakeenek (beste batean beharko du), kirol-bizitza egitera eragiten dute. Hau da, Portlanden bizitza bizitza “kirolzale”, osasungarri, “organiko”, jasangarri eta kasu batzuetan “parte-hartzailearekin” asoziatu dago.

Ms. Sarah King, PDCekoak (*Portland Development Commission*) adierazten digunez 1973ko Lurzoruaren Erabilerearen Legearen moduko estatu-erregulazio bat izatea salbuespen bat da Gobernu federal batentzat EE.BB.etan. Bestalde, garrantzi handia ematen dio METRO⁵². bezalako Gobernu federal bat izateari. Bi hiri nagusi bakarrik daude EE.BB.etan Gobernu erregionala dutenak: bata Portland da eta bestea Minneapolis⁵³. PDCaren helburua, erakunde independentea den heinean, sustapen ekonomikoa eta sektore pribatuak inberti dezan laguntzea da, hirigintzari dagokionez birsortu diren guneetan ezartzea.

• *Hiri Birsorkuntza: Pearl District eta EcoDistrict*⁵⁴

Dra. Connie Ozawa-k azpimarratzen du Portlandeko Hiri-Erregioa kulturalki⁵⁵ ez dela EE.BB.etako gainerako guneak bezain desberdina. Aspektu hori kontuan hartzeko da dena oraindik ez dagoela egina ulertu ahal izateko. UGBk oinarriak ezarri zituen Portland Hiri-Erregio jasangarri eta bezala eratzeko hiritarren partehartze-maila altuekin kultura-desberdintasun handiko biztanleria bat ez izateak pentsarazten du oraindik ez duela eragin hiri-erlaldaketa bat sormen eta talentu-erakartze gakoan. Eta horrek, Floridaren⁵⁶ tesiei baturik edo haiekin erlazioz, gogoeta eragiten digu Portlandek ez ote lukeen behar agian talentua erakartzeren, espiritu sortzailearen gakoan eraldaketa bat; eta hori ekintzaitza eta sektore berri gorakorren⁵⁷ sorkuntza bihurtuko litzateke erregio-lehiakortasun baten ikuspegitik.

Ildo honetatik, Hiri-erlaldaketa barrutiak birsortzearen bidetik badirudi sendotu beharreko politika dela Pearl eta Eco Districteko kasuak erakusten ari direnez. Ahaztu gabe Hawthorne edo Alberta gisako gune “*autoktonoagoen*” ondarea. Pearl Districten kasuan, 50. urtak arte, biltegi eta enpresa manufakturatzaileen alor euskarria edo hedapen bat zen barrutia. Hiru ideiatan bil genezake:

51
Dublin-en kasua (Irlanda) hiriaren
iparra eta hegoa bereizten dituen
Liffey-n aurkitzen dugunaren
antzekoa da

52
<http://www.metro-region.org/>

53
<http://en.wikipedia.org/wiki/Minneapolis>

54
Bennet, Rob, EcoDistricts
Framework Concept for Metro
Portland, Portland, 2009. <http://www.pdxinstitute.org/index.php/ecodistricts>

55
Portland State University, Center
for Intercultural Organizing
Bridgetown Voices, Uniting Cultures
in Portland: Bridging the Gaps in
City Policy, 2006

1. Alorrak halako kutsu bohemio bat garatu zuen⁵⁸, start-up negoziotxoan inkubategi bezala aldi berean, komunitate sortzailea loratzea babesten zuen, *loft* bihurtutako biltegi zabalk baliatzen zituen, lan egiteko eta ingurune berean bizitzearen funtzioa betetzen zutelarik, inguruan iragan manufakturatzailea zutenak. Hain zuzen ere “*perla*” izendapena hartu zuenaberastasun artistikoen sinonimo bezala arte-galeriei eta arte-estudioei zegokienez.
2. Hala eta guztiz ere ez dezagun ahaztu Pearl District birsortzearen helburu estrategikoa *urban village* bat sortzearen alde egitea besterik ez zela (Neal, 2003) edo hiri-auzategi bat biztanleria dentsitate handikoa hiriaren erdigunean UGBa ezartzeko.
3. Azkenik, Jane Jacobsen ondareari jarraituz, biztanleria- dentsitate handiko barruti berezi bat sortu nahi zen eta gizarte-, ekonomia- eta kultura-bizitzako erabilera mistoekin. (Neal, 2003: 17)

Dr. Ethan Seltzer⁵⁹ dagoeneko lanean ari da EcoDistrict proiektuan eta bertan auzategien jasangarritan aurreraturako kontzeptuak eta metodoak desberdinak lantzen ari dira. Komunitate Lokalen Etorkizuna prospektiborako gai nagusia: barruti bereziak edo EcoDistricts deituak sortzea⁶⁰.

• *Link Hiritarra + Landatarra*

Bat datoz Portland ereduaren arrakastaren jatorria landatarra eta hiritarra dena konbinatzea dela. Bi munda idiosinkrasiko desberdinak, kulturalki eta antropologikoki ere, izan ere elkarrekiko errespetu- eta baliabide naturalak eta ingurumena kontserbatzearen arteko itun komunaren eraginez, gero eta modu estuagoan elkarrekin biziz joan baitira. Gaur egun bertan ere, non Dr. Seltzeren arabera erronka handia bi barrutien, landaren eta hiriaren sinergiak bilatzea baita, *gapak* gainditzeko eta azpiegitura multimodal batzuk eraikitzeke ez bakarrik Portlandeko Hiri-Erregiorako, baizik eta Oregon estatu guztirako. Bi akademikoen arabera, UGBaren hasierako garapenak bi mundu sinbolikoak eta geografikoak hurbilarazi egin ditu era oso interesgarrian. Baina oraindik badira zubiak bi munduen arteko konexioa jariakorrago bihurtzeko.

Ideia horri zentrala deritzot Euskal Hiriarentzako *benchmarking* aspektu bezala. Ohiturik gauden dikotomiak pixkanaka bide eman beharko lioke landatarraren eta hiritarraren arteko teilkatze-gune bati. Hau da, *Euskal Herriak* lekua izan beharko luke Euskal Hirian, 1.2.2. Sailean aipatzen denez.- Landatarra denaren eta Hiritarra denaren artean oreka bat burutu.

• *Garraio Publikoa*

TRIMET da Portlandeko Hiri-Erregioko garraio publiko intermodalaren zerbitzua: Bus, Max, Wes *commuter*⁶¹ rail eta el Streetcar-ek era koordinatuan jokatzen dute. Garraio publikoari dagokionez Portland eredugarria da eta zalantzarik gabe *benchmarking* elementuetako bat da. Oso luze joko luke TRIMETek garatu dituen inplikazioak, trazatuak eta ezagutza gakoa zehazki azaltzeak. Datu batzuk: egunero 300.000 bidaia egiten dira, sistema intermodalak 71 km-ko luzera du eta 64 geltokiko kopurua du.

56

Florida, Richard, The Economic Geography of Talent. Annals of the Association of American Geographers 92(4): 743-755. 2002

57

Greenlight-Greater Portland, The Greater Portland-Vancouver Solar Industry, 2006

58

Peter Nealek nabarmentzen duen aspektua eta Richard Floridak egitura-elementu bezala identifikatzen duena, barruti berezi bat “sortzaile” gune bihurtu baino lehenagokoa. Aspektu hau oso ikergarria da nire ikuspuntutik. Zein da gune sortzaile baten berezko sortze-prozesua? Agian planteatzeko gaietako bat izango da hemen: II 5.2, 7.2 eta 7.3. Sailak. Neal, Peter, Urban Villages and the Making of Communities, London, 2003, Spon Press. 221. or.

59

Seltzer, Ethan, Making EcoDistricts: Concepts and Methods for Advancing Sustainability in Neighborhoods, draft, 2010

60


Barton, Hugh, Sustainable Communities: The Potencial for Eco-neighbourhoods, London, Earthscan, 2000

61

Ohargarria iruditzen zait pertsona batek izan dezakeen konektibitate fisikoaren ranking-a kalkulatzeko tresna berria egoitza duen lekuaren arabera: <http://www.walkscore.com>

Ondoren aurkezten dut bilakaera-datua hiri-mugikortasunari dagokionez, Portlandek konektibitate fisikoko modalitate desberdinetan aurkezten duena.

Journey-to-Work Mode Share for City of Portland Residents, 1997-2008



27. figura

Portlandeko Egoiliarren Commuter Garraio Modalitatea, 1997-2008 aldia

Iturria: OSU

62


• *Biking*⁶²

Parast, Adam B., Portland and Seattle Cycle Analysis (pdf)

28. figura

Biking-aren Erabilera Gehitzea. 1991-2008 aldia

Iturria: City of Portland, Office of Transportation, Portland Bicycle Plan for 2030, Portland, 2010



Ez dago inolako zalantzarik, 27. Figura behatu ondoren garraio publikoaz eta 28. Figura *biking*-ari buruz, tren eta bizikletaren arteko konbinazioa gehitzen ari den trantsitorako hiri-bitarteko bat dela. Ildo horretatik, nahiz eta ezin izan

den aurkitu *bike-friendly-cityen* ranking bat zorroztasun eta prestigio pixka bat duenik, esan dezaket Kopenhagen (Danimarka), Amsterdam (Holanda) eta Portland (Oregon) direla *best-in-class*. 29. Figuran EE.BB.etako hirien batezbestekoak datu baikor baten ekarpena egiten duela *biking*-arentzat baina ez hain ona garraio kolektiborako. Oraindik ere gidaritza banakoaren jarraibidea gehitzen ari da, asko ez bada ere.

% Change in Mode Share, 2000-2009, Averaged Across America's Biggest Cities							
	Total Auto	Total Non-Auto	Driving Alone	Carpooling	Transit	Biking	Walking
All Cities	-3.4	-2.0	1.5	-25.9	-6.4	58.5	1.8

- *Recycling*⁶³

Interes berezia duen beste aspektua birziklatzearena da⁶⁴. Hainbestera, non dagoeneko baden birziklatze-teknologiei eta ingurumen-ingeniaritzari buruzko enpresen kluster bat, honako kasu honena bezalakoak: GeoDesign Inc, CH2M Hill, David Evans and Associates, URS Corp. y PBS Engineering.

2. Ardatz zentrala Portland Hiri Parte-hartzaile bezala eratu izateko:

- *Inplikazio zibila*⁶⁵

